

## ERREPUBLIKA, GUDA ZIBILA ETA FRANKISMOA TOKIKO EREMU BATEAN: BEASAIN

**Tesiaren egilea:** Jon Kortazar Billelabeitia

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Historia Garaikidea

**Tesi-zuzendaria:** Mikel Xabier Aizpuru Murua

**Tesiaren laburpena:**

Lerro hauetan laburtzen dudan tesiak Beasain du ikerketarako objektu, eta 1931-1945 urteen artean fokuratzeko da. Lan hau hasterakoan, helburua zen militar kolpistak sartu zirenean (1936ko uztailearen 27an) hil zituzten herritarren kopurua finkatzea eta horien izenak ezagutzea. Baina gero, kontuan izanik 1931-1936 tartean Beasain izan zela Gipuzkoan ezkerreko gehiengoa izan zuen udal apurrenetako bat, gure helburu moduan hartu genuen Beasaingo fisionomia berezi hori aztertzea, eta horren inguruan sortu izan diren prozesu politiko ezberdinak analizatzea. Hortaz, azken urteetan Gipuzkoan atera diren beste lan askoren joerarekin bat egiten du lan honek.

Izan ere, bi izan ziren Gipuzkoan «berotan» (hau da, altxatutako militarrek sartu eta berehala) hilketak masiboak pairatu zituzten herriak: Beasain eta Arrasate. Honekin ez dugu esan nahi beste herri batzuek baino hilketak gehiago jasan zituztenik, baizik eta hilketak denbora oso motzean gertatu zirela (Hernani eta Oiartzungo hobi komunak, ordea, hilketak-prozesu «antolatuago» baten isla izan ziren). Beraz, gure lanean bi kasu hauekiko konparazioa ere present izan dugu. Ikusi dugun bezala, Beasainen erailak izan zirenen profila, Arrasateko hilketan erailak izan zirenen profilaren aldean ezberdina zen: ez zuten profil bateraturik, eta askotan ezta profil politiko jakinik ere. Beraz, Arrasateko hilketekin konparatuz, esan dezakegu Beasaingo hilketak egiteko zioa ez zegoela aurreko garaietan gertatutakoetan (1934ko iraultzan, adibidez), Beasainen polarizazio soziala txikia izan baitzen, eta bertako ezker oso moderatua. Ez zen «mendeku» gertaera bat ere izan, 1936ko uztailearen 18tik 27ra ezkerrearen bortizkeria Beasainen oso txikia izan baitzen. Beraz, Beasaingo eskuin politikoaren erabaki bat baino gehiago, militarren erabaki bat izan zelakoan gaude. Bi arrazoi posible ematen ditugu hori azaltzeko: «herri aurrerakoi» izanaren famagatik «eskarmentu bat eman beharra» (Pablo Cayuela militarren buruari halako zerbait entzun bide zitzaien), edo, bestetik, gipuzkoarren artean beldurra hedatzea. Hala ere kontuz ibili behar dugu beste tentazio batekin: guda «bertakoen» eta «kanpokoen» arteko guda bezala ikustearekin. Beasain, oro har, ezkeriarra bazen ere, bazeuden militarren etorrera begi onez ikusi zutenak

